

Kosmodisea 2008-2009 | Fono Planeta | Batxilergoa



Gorka Matute (Manuel Larramendi Ikastola)

Andoaingo Manuel Larramendi Ikastolako Gorka Matute izan da Batxilergoko kategorian lehen postua lortu duen ikasle-taldearen arduraduna. Irakasleak dioenez, ikasleek oso pozik hartu dute postu hori eta eragingarria izan da Manuel Larramendi ikastolako ikasle guztientzat Kosmodisean egiten ari diren lanari ekiteko.

Matutek, zailena zer egin behar zen eta nola egin behar zen ulertzea izan zela dio.

“Parte hartzen genuen lehen aldia zen eta ez genekien oso ondo nola egin behar zen lana. Alde teknikoa ez zaigu oso zaila iruditu; zailena nork grabatu behar zuen erabakitzea izan da guretzat. Inork ez zuen ahotsa jarri nahi; ikasleak oso lotsatiak dira. Hala ere, Audacity eta Kosmodiseako aplikazioarekin ez dugu arazorik izan.”

- Zure ustez, orain arte zein izan da Kosmodiseako edizio honetako gauza interesgarriena?

- *Atal guztiak interesgarriak izan dira, baina ikasle gehienei asko gustatu zaie simulatzailea. Bestalde, eta nire ikuspuntutik, IKTekin zerikusia duten tresna desberdinak erabiltzea eta talde-lana dira nik gehien baloratzen ditudanak: testuak, irudiak, soinuak, foroak, bilaketak, blogak, multimedia, etab. Ikasleei, gaur egun hain erabiliak diren IKTko elementu asko ezagutzeko aukera eskaintzen zaie. Hori bai, talde-lana eta guztion ideiekiko errespetua azpimarratuz.*



- Zer izan da zailena?

- *Hasieran, arazoak izan genituen Kosmodiseako aplikazioekin, konexioarekin, Firefox nabigatzailearekin, erabiltzaileak sortzearekin, etab. Ondoren, arazoak izan genituen zer egin behar genuen erabakitzeke. Lehen aldia denez, horixe izan da zailena. Baina, erritmoa hartu dugunetik, ikasleak oso gustura dabilta eta zailtasun horiek txikiak ikusten ditugu.*